



BAT 2020 PRESTAKUNTZA-PROGRAMA

- **Metodologia:** Ikasturte honetan Prestakuntza **birtuala** izango da (**BBC**) Izena eman duten ikasleak [EgelaPI](#) plataforman sartuko dira, zehazki "Tutoreak Batera" ikastaroan, eta plataformatik prestakuntzarako BBC saiorko sarbidea izango dute.

Prestakuntza, funtsean, praktikoa izango da. Horretarako, lehen aldiz, **BAT Talde Eragilearen** laguntza izango da, hau da, programa honetan alde aurretik esperientzia duten ikasle tutoreak. Taldeka lan egingo da materiala sortzeko eta, ondoren, EgelaPI plataformara igotzeko: "FAQ", "Kasu praktikoak", etab.

Gainera, BAT programaren koordinazioan esperientzia duten irakasleek alderdi teorikoa eta/edo bere esperientzia kontatuko dute.

Ohar garrantzitsua: Lantaldeak campusaren arabera antolatuko dira, eta ahal den neurrian ikastegi berekoak. Dena den, Talde Eragileko gidaria edozein campusetakoa izango da.

Aldez aurretik jakinarazi behar da prestakuntza-saioan justifikatutako arrazoiren batengatik esleitutako eguna aldatzea eskatu nahi den.

Aurtengo formazioa desberdina denez aurreko urteetan tutore izan direnek egin beharko lukete.

- **Egutegia:**

| 1. SAIOA | Hitzaldia eta Talde-lana |
|------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 9:00-13:00 | <ul style="list-style-type: none">- Saio birtuala Arabako campuseko ikasleekin: irailaren 2a- Saio birtuala Gipuzkoako campuseko ikasleekin: irailaren 3a- Saio birtuala Bizkaiko campuseko ikasleekin: irailaren 4a |
| 2. SAIOA | Talde-lana |
| 3 horas | <ul style="list-style-type: none">- Bilera honen eguna eta ordutegia lantaldea osatzen duten pertsonen eta Talde Eragileko koordinatzailearen artean adostuko da, eta EgelaPI plataforman egindako lana argitaratu beharko du lantalde bakoitzak ("Tutoreak BATERa" ikastaroa). |